

# noaua



**Zapategi biziberritzeko  
hitzarmena adostu dute**

**Hobarien eskaintza  
zabalagoa 2022an**

**Zubietak Nahia  
Zudaire Borrezo  
omendu du**



**6. or.**

**KAFE GARAIA**

**Aitor Aranguren**

“Presioa sentitzen  
dudanean ere, gustura  
aritzen naiz frontoian”





ZUEN ZERBITZURA, SEGURTASUN NEURRI GUZTIEKIN!

## Sagardotegia



### URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA TXOTXETIK!

Bereizitasuna; Sagardotegiko menua  
Karta zabala, ikatz parrilan erretako arrauekin.  
Familiako ospakizunak, bataio, komunio, enpresa afariak...  
Ezkontzetarako jangela egokitua.  
Parkina eta umeentzat jolastokia.

Tfn-fax: 943 36 67 10 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagasagardotegia.com - www.aginagasagardotegia.com

## AGINAGAN HOTELA

24 gela eroso eta guztiz ekipatuak:  
aire girotu eta berogailua, TV, WIFi, bainugela  
konpletoa...

Diseinu moderno eta funtzionala

Energia berriztagarri (geotermia) baliatzen da ur beroa eta klimatizazioa lortzeko.

Lan bidaia, oporraldi eta lasaitasunaz gozatu nahi duenarentzat leku ezinhobeak.

Tfn-fax: 943 37 06 68 - Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
info@aginagahotela.com - www.aginagahotela.com

## Hotela \* \*



San Praixku  
bihotzean



Mutiozabal etxea 17, AGINAGA 943 36 10 81 atxega@atxega.com www.atxega.com

## Albisteak iruditan

## Matxuratutako hodia konpontzen hasiak

Errekatxikin lehertua zen ur zikin hodia konpontzen hasi da Usurbilgo Udala. Ondorioz, aste hasieratik itxita dago “Aranerreka-Bustinzulo oinezkoen bidea”. Gogoan izan, hilabete hasieran Aranerrekan ikusi ziren ur zikinen arrastoaren jatorria aurkitu eta argitu zuen Usurbilgo Udalak. Ohar bidez jakinarazi zuenez, Errekatxiki inguruan leherturiko hodi batek eragindakoak ziren.

Hala egiaztatu ahal izan zuen Udalak, kamera bat pasa zuenean lehertua dagoen aipatu hoditik. Eguraldiaren baitan, “lau bat egun beharko dituzte bukatzeko”, honenbestez, aste honen amaiera alderako amaituak behar lukete lanok. Ingurune honi lotuta, Aranerreka parkean egingo dituzten hobekuntza-lanen berri ematekoa da egunotan Udala.



Aranerreka ondoko parkeko ibilbidea lanengatik itxita egunotan.

## Laburrean

## Eremu horitik berdera igarotzeaz

Iragan aste osoan covid19 kasu bakarra izan ostean, 63,41era murriztua zen intzidentzia aste hasieran. Eremu horian segi arren, berdera igarotzeaz. 10 kasu guztira iraila osoan, 56 izan ziren kutsatuak abuztuan.

## Udal Parekidetasun Saileko ikastaroak

“Amatasun bizigarria”, “Menopausia. Hausnarketarako unea” eta “Biodantza” ikastaroak antolatu dituzte, Emakumeen Ahalduntze Eskolaren baitan. Izen emateko bideok daude: parekidetasuna1@usurbil.eus / 943 37 71 10.

## Yoga klaseak Zubietan, urriaren 7tik aurrera

Zubietako Eskola Txikiko guraso elkar-teak yoga saioak antolatu ditu Kaxkapen. Urriaren 7an abiatuko dira. Ostegunero eskainiko dituzte, 17:00-18:30 artean. Interesdunek ainetxe@hotmail.com helbidetan eman dezakete izena.

# noaqua

Kultur Elkartea  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:  
Idoia Torregarai.  
Aldizkariako koordinatzailea:  
Imanol Ubeda.  
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.  
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.  
Publizitatea: Beatriz Alda,  
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
Tirada: 2.930 ale.  
Lege-Gordailua: SS-668-96  
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
Harremanetarako:  
erredakzioa@noaqua.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia





Ugaitz Agirre Zapirain

**G**ogoratzen nola erre zen Usurbilgo eliza-ren dorrea krimen tamalgarriaren ostean? Ez? Eta zergatik ez naiz harritzen uda tarteko izanda? Izango zenituen bidaia eta joan-etorriak eta oroitzapen sortzaileak eta amnesikoak zerbait fikziozkoa gogoratzea baino kitzikagarragoak direnak. Akaso Ulises bera bezala ibiliko zinen zure odisean sirena eta sorginen artean zoraturik. Usurbil basamortu bihurtu da, eta Ezpeldoi inspektoreak ezin inor galdekatu.

Udaltzaingoaren mahaian jarrita frogak aztertzeko eta aztertzeko pasatzen zituen orduak, desesperatzeraino. Itxaropena urri baita nondik tira ez dakienean gaizkile ehiztariak. Kide batek kafea ekarri zion gaueko ordu txikiak han pasatzeko intentzioak nabari baitzitzaizkion aurpegiko keinuetan. Conan Doyleen liburu bat irakurtzen pasa zuen gaua, baina, eta pentsatzen zuen, bai erraza pertsonaia batek harek partikulatik urrea bilatzea edo epifania miresgarriak izatea unerik ilunenetan. Usurbil ez da inongo Hollywood, ordea, eta udaltzaingoaren bulegoak ez du New York euritsuetako kafetegiek duten malenkonia patetiko hori. Krimenak miserableak, doilorak, zitalak dirudite. Agian ezintasunak eraman zuen gorputegira eta,



“Zuek denok zarete etxebestetarrak, aita besoetakoaren zerbitzura lanean”.

## UGAITZ AGIRRE

**“Trapu zaharrak  
ganbaretan gordeta  
hobeto daudela  
argudiatuta,  
edonor sentitu daiteke  
urduri, inor ez baita libre  
trapu zaharrak izatetik”**

aurpegi gabeko hilotz haren parean jarrita, pentsatzera izate post-mortem batek argituko ziola bere kobazuloan. Guardiako pertsonalak ere lotaroko zeuden, eta termo barruko kafeina beroak begiak zabaltzea ez zen beste edozertarako balio zuen. Ordulariaren orratzen tik-tak hotsak fluorezenteen erradiaktibotasunarenarekin larrutan, egonezin absurdo batek betetzen zuen atmosfera hutsa. Absurdoa eta esoterikoa, gorpuaren gainean

zeuden oxigeno, nitrogeno, ur, karbono dioxido eta argon partikulen erreakzioa zirudien ke magikoak Amaia Ezpeldoi bere egin baitzuen. Gorputegia baino tantahiru bider erakargarriagoa zen ke toxiko hark eramandako unibertso paraleloa. Edo izan zitekeen multibertsorako leihoa?

Paisaia kosmikoan bertan ikusi du Etxebeste, aita besoetakoak. Gehiegi galdetzen ari zen neskatalari hitzak laburtu behar zitzaizkiola iradokitzen zion bere hurbilekoei. Trapu zaharrak ganbaretan gordeta hobeto daudela argudiatuta, edonor sentitu daiteke urduri inor ez baita libre trapu zaharrak izatetik. Horregatik, bere babestuek argi dute zer egin behar duten eta euren aurpegietan nabari da aita besoetakoaren aginduak betetzeko intentzioa eta gogoia.

Amaia ez da berehalakoan ohartu fantasiaren parte dela,

eta horregatik ezkututzen saiatu da altzarien artean. Baina irudiak azkarregi aldatzen dira, eta orain etxebestetarrak elizpean ari dira jipoitzen emaztea hil arte. Laguntzera lasterka abiatu arren eta indar guztiz garrasi eginda ere geldizitezen eskatuz, alferrik da.

Berriro ere gorpuaren aurrean dago gorputegian. Zirraraz beteta gertatu zaionarekin, dena ulertu du. Trapu zaharrak, Etxebeste aita besoetakoak eta bere jarraitzaileak. Oporretatik bueltan itzuli diren usurbildar guztiak sorpresaz hartu ditu egunerokotasunean.

Filmetako inspektorearen modura, bere bakarrizketari hasiera eman dio: “Kostatu zitzaidan ulertzea zer demonstre esan nahi zuten krimen guztiek, baina orain gauzak argi daude. Zuek denok zarete etxebestetarrak, aita besoetakoaren zerbitzura lanean, herrian dituzuen trapu zahar guztiek ezkutuan mantentzeko asmoz. Usurbil ez litzateke Usurbil historiaren joan-etorrietan isilpean eta erdi-gordean egindako krimenak egon ez balira. Horregatik, denok zarete errudunak. Seguru nago hemen, udaletxean aurkituko ditudala froga nahi-koak”.

Txalo ironiko eta harriduraz aurpegiak. Eta bat-batean: “Sua! Sua!”.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

## Komikia





# Anerrekaren dokumental proiektzioa

Hileroko dinamikari jarraipena emanez, joan den larunbateko Usurbilgo merkataritza eta industria hondakinen karakterizazio ekitaldiaren ondotik, urrirako “Ez, eskerrik asko! Gladysen leihoa” dokumentalaren proiektzioa antolatu du Anerreka ingurumen elkarteak urriaren 7rako, arratsaldeko 18:30ean Sutegiko auditorioan. Hitzordurako izena ohi bezala, aurrez eman beharko da, urriaren 5a baino lehen, usurbilkultura.eus plataforman.

## Mugimendu antinuklearrak

Ikus-entzunezko lan honek “Gladysen gertakariaren harira garaiko gizartearen onespina lortu zuen mugimendu sozialaren erretratu bat egin nahi



“Ez eskerrik asko! Gladysen leihoa” dokumentala proiektatuko du Anerreka ingurumen elkarteak urriaren 7an arratsaldeko 18:30ean Sutegin.

du”. Gogoan izan, Gladys del Estal Ferreño Tuteran hil zen Guardia Zibilaren tiroarekin, Arguedasen eraiki nahi zuten zentral nuklearraren aurkako manifestazio baketsuan. Garai hartan, 80. hamarkada hasieran, “mugimendu antinuklearra puri-purian zegoen

nazioartean, eta bai Euskal Herrian ere”. Sortze lan horrek garai hartako testuingurura eramango gaitu. Dokumentalaren zuzendari Bertha Gaztelumendi eta gidoigile Sabino Ormazabal proiektzio ekitaldira gonbidatu ditu Anerreka ingurumen elkarteak.

## Eskubaloi partidak

Jada, herriko kirol taldeen partidez gozatzeko aukera dago. Oraindik harmailetako edukiera mugatua da, baina aipatu moduan, neurketok bertatik bertara ikusteko aukera bada. Pandemia ostera gerturatzeko goazen adierazleetako bat izan daiteke. Usurbil Kirol Elkartetik jada etxeokak animatzera bueltatzera joateko gonbita luzatzen digute. Asteburu honetan bi eskubaloi taldeek jokatu dute Oiardo Kiroldegian. Larunbat goizean hain zuzen:

## Urriak 2, larunbata

■ 10:00 Kadete mutilak: Zarazpe Usurbil K.E.-Tximista Taberna Pulpo EK.

■ 11:45 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Creados Pulpo EK.

## Ika-mika

# Oroimenaren bidean, eskertza Usurbilgo herriari

Fusilatuen senitartekoen pausuak oholtzarantz kamera geldoan etorri zitzaizkigun. Euren irribarreak eta malkoak iltzatuta geratu zaizkigu. Une zirraragarriak. Azkenean, 85 urte lehenago tropa faxistek hustu zuten plaza, irailaren 18ko larunbatean bete genuen. Memoriak bete, atxikimenduz bete, goxotasunez eta maitasunez bete genuen Usurbilgo frontoia.

Hala, larunbateko ‘Izan zinetelako gara’ oroimen ekitaldia magikoa izan zen Usurbil 1936 elkarte osatzen dugun guztiontzat. Bihotza taupaka ezin geldi eta negarrari ezin eutsi izan ginen guztiok. Hori dela kausa, orain, egun batzuk pasata, eskerrak emateko garaia ere bada. Eskerrak eman, zuek gabe ekitaldia posible izango ez baitzen.

Lehenik, gurekin batera parte hartu zuten herriko elkarte

eta gizabanakoei. Mila esker. Ugari izan zaretelako zuen harri-koxkorra ekarri duzuenak. Hasteko, larunbat goizeko mural margoketan jardun zineten guztioi, eskerrik asko.

Arratsaldeko herri omenaldia hastear zela, suziriak botatzen aritu zitzaigun Itoitz Rodriguez. Gero, adarra jotzen, Martxelo Santxez, Joxelu Zabala eta Bittor Iribar. Txistulari lanetan, Iñaki Mujika, Jexux Mari Pagola, Roman Manterola eta Iker Martix. Txalaparta jotzen, berriz, Irastortza aita-semeak. Ezin ahaztu Orbeldi Dantza Taldea: Aroa Boubeta, Aitor Agirre, Mikel Artola eta Elorri Armendariz. Esker mila bihotz-bihotzez.

Ondoren, Aitzaga Elkarteari, eskerrak; bereziki gurekin zuzenean lanean aritu diren Fermin Munarrizi eskaletan eta Mikel Larrañagari logoaren margoketan laguntzearen. Ezin ahaztu ‘Odolaren mintzoa’ taldeko Luken Arkarazok eta ‘Ameba’ taldeko Jon

Mikel Azpiatzuk sortutako abesti ederra. Ezta Ixak Arrutik nola emozionatu gintuen bere musikaz ere. Bideo bidez, Andatzako lubakietan grabaturik, Jon Maia sortzaileari ere eskerrak bere bertsoengatik. Eta amaieran, ekitaldia ixteko, Ugaitz Agirrerren poesiak hunkitu gintuen oso. Bukaera ezin hobe.

Antolakuntzan jende asko aritu da lanean. Tartean, Ibai Arrieta argazkilaria eta Haritz Arrizabalaga bideogilea. Eskerrik asko. Lan itzela egin du ere gure Ansoaingo lagun Eneko Lizardik, logoa, kamisetak eta ekitaldiko kartela eginez. Mila esker guztioi zuen lanagatik. Zuotako asko eta asko hainbat bileratan izan zarete gure alboan. Esker mila, denoi.

Berebat, udal gobernari, orain ia bi urte aurkeztutako oroimenaren ekimen honetan bete-betean sinesteagatik. Mila esker. Baita gainerako alderdi politikoei ere. Eskerrik asko. Azkenik, Usurbilgo herritarrei, horren babes bero

eta goxoa emateagatik. Esker mila benetan.

Nolanahi den, hau ez da agur-eskertza bat. Hau hasi besterik ez baita egin. Larunbateko herri omenaldia pausu bat gehiago izan baita soilik. Beste urrats bat. Izan ere, hemendik aurrerako ekintzetarako ere herritar guztion babesa eta laguntza beharko dugu.

Bide luzea dugu urratzeko oraindik, Usurbil memoria historikoaren bidean irmoki kokatzeko pausu gehiago eman behar baititugu. Eta honakoa ondo baino hobeto dakigu: bide-lagunik onenak ondoan ditugu. Beraz, batu zaitezte, mesedez, memoriaren bide eder hori gurekin egitera. Oroimena dugu irabazteko. Izan zinetelako gara... eta garelako, izango dira. Mila esker denoi bihotz-bihotzez. Gora Usurbil eta gora memoria!

**Usurbil 1936, Oroimen Historikoaren Aldeko Elkartea.**

# Zubietarren gorazarrea Nahia Zudaireri

Zubietako herriak Tokioko Paraolimpiar Jokoetan lehiatu berri den Nahia Zudaire Borrezok gaztea omendu zuen igandean plazan.

“Tokioko Olinpiar Jokoetan lortutako emaitzengatik zorionak bihotzez”. Hala zioen, Nahia Zudaire Borrezok Zubietako herriaren eskutik iragan irailaren 26an jaso zuen oroigarriak. Goialdean, bere irudia; igerian. Bere kirol ibilbideari gorazarre egin baitzieten zubietarrek Nahiaire errebote plazan ospatu zen ekitaldian. Zoriondu eta omendu egin zuten izan duen ibilbide oparoagatik.

2018an Dublingo Europako Txapelketa, lehen zazpi postuetan sailkatu zen proba ezberdinetan. Urtebete beranduago Londonen beste hainbeste, lehen postuetan sailkatu zen. Aurten Portugalgo Europako Txapelketan, 200 metroko estiloan 4. postuan, bosgarren 50 metro librean, hirugarren 100 metroko librean, “segundu erdiagatik ez zuen zilarrezko domina eskuratu”.

Espainiar estatuan hainbat marka hautsi ditu: 50, 100, 200, 400 eta 800 metro libreetan. 50 eta 100 metroko tximeletan eta 200 metro estilotan. Azken aldian ordea, oihartzun handie-



Nahia Zudaire Borrezok, Zubietako herriak emandako oroigarria eskutan.

## NAHIA ZUDAIRE

**“Egia esan, gozagarria izan da, munduan zehar Zubietaren izena zabaltzea”**

na abuztu amaieran Tokioko Paraolimpiar Jokoetan izan du Nahiak. “Lehenengo proban ez zen finalerako sailkatu, beste bi probetan bai; laugarren postu bat eta zortzi ehunenengatik domina eskuratzear” izan zen, gogorara zuten, Zudaireren ibilbide oparoaren errepaso egiten jardun ziren Zubietako Herri Batzarreko kideek. Esker oneko agertu zen, txistularien musika doinu eta Zubietako errebote plazara joan-

dakoen txalo artean heldu zen omendua. Pozik eta esker oneko, ekitaldian zehar, hitza hartu zuen uneen bezala. “Milesker etortzeagatik, nire ibilbidea ospatzeagatik. Egia esan gozagarria izan da, munduan zehar Zubietaren izena zabaltzen joatea. Jasotako mezu guztiak irakurri ditut, milesker denei”.

## Zortzitan-ekoen bertso sorta

Paraparesia ze ote den gazte ikasi beharra aparatotz lagundurik ibitzerako baldarra Txikitatikan pistinan krol, tximeleta, bularra sirena baten moduan sortuz lehiatzeko arra

Goizean seitan jaikita ez du galtzen irribarra Pako Yoldiko putzuan argitzen doan izarra bera Nahia Zudaire da ta gañea zubietarra

Hamalau urtez Dublinen Europako Txapelketan esperientzi berri bila abiatu zen sei probetan Urte gerora Mundiala Inglaterrako uretan erreleboan taldeka ta bakarka tximeletan Atzerriko rekorrak berrehun metro estilotan tximeletan bi distantzi eta beste bost libretan etorkizun oparoa daukazula begi bistan

Belauneko lesioa bi mila hogeigarrenean Covid-a zuk sortu al zenun sendatzeko beharrean Bueltan Berlinen dominak jarri dituzu soinean Portugaletik zilarra ta segundu erdiz brontzean Tokioko bi diplomak dominarako ertzean segi izaten irrifartsu kalean gurutzatzean ta hogeitalauan Parisen domina lortze zunean

## Harrera, dantza eta bertso artean



Zubietarren agurra dantzatzuz abiatu zuten Nahia Zudaire Borrezok omentzeko ekitaldia. Txalo artean hartu zuten igerilaria, errebote plazan.



Zubietako herriaren izenean, Herri Batzarrek gidatu eta haien eskutik jaso zuen Nahia Zudaire Borrezok merezitako omenaldi eta oroigarria.





**San Praixku bihotzean!**

**Angulas Mayo s.l**

AGINAGAKO ANGULAK  
BEREZKO BIBEROAK

**TOKI BERRI Z/G AGINAGA 943 36 15 94**



**VDA. E HIJOS DE  
JERONIMO  
IZAGUIRRE**

**San Praixku bihotzean!**

**943 362 146 AGINAGA**  
**[www.mariscosizaguirre.com](http://www.mariscosizaguirre.com)**

# Aitor Aranguren Errasti: “Debuta, txikitatik denok amesten dugun eguna da”

Aitor Aranguren Errasti, 21 urteko pilotari aginagarria. NOAUA!-ren 25. urtemugaren harira zabaldu dugun Kafe Garaia ataleko aste honetako gonbidatua. Pilotaz eta beste hainbat kontuez aritu gara berarekin.

**NOAUA! 25 urte egin ditu headbide eta elkarte honek. Zuretzat zer da NOAUA!, zer ematen dizu zuri?**

**Aitor Aranguren Errasti:** Aste-roko informazioa. Gauza askotaz jabetzeko aukera ematen du, bestela askotan gertatuko ez balitz bezala egiten ditugun gauzen gainean. Lan horretan, oso garrantzitsua da NOAUA!.

**Duela 25 urte oraindik jaiotzeko zeunden. Aldaketa asko izan dira ordutik gizaratean. Zuzeneko pantailara pasatu gara azken hamarkadetan, zuk ere aldaketa horiek nabaritu dituzu lagun giroan edota pilotan?**

Pixka bat aldatzen ari dela uste dut, une oro adi gaude whatsappari edota jakinarazpenei lagun artean egonda. Halere, gure gaztaroan ezagutu genuen mugikorrik gabeko aro bat. Eskertzekoa izan zen.

**Kiroletan badago sare soziale-tara jotzeko joera. Pilotan ere badira ohitura horiek?**

Pilotariak ere horretan ibiltzen direla iruditzen zait. Kritika txarrak egiten dituen jendearen iritziak bidaltzen dizkigute, bai-



“Konfinamendua baino astebete lehenago amaitu zen pilota profesionala, hiru hilabetez. Arazoa izan zen niretzat, eskuak asko biguntzen zaizkigu geldirik egonda”, adierazi dio NOAUA!ri Aitor Aranguren Errastik.

## AITOR ARANGUREN

**“Kritika txarrak egiten dituen jendearen iritziak bidaltzen dizkigute, baina ez diet kasurik egiten”**

na nik behintzat ez diet kasurik egiten.

**Pandemia batek kolpatu gaitu denoi. Nola bizi izan duzu garai hau?**

Abantaila handia geneukan, nahiko toki handian bizi baika-ra mugitu ahal izateko, baina,

hala ere, esango nuke nahiko gaizki pasatu nuela. Lagunekin egoteko beharra sentitzen nuen, familiakoekin ere bai. Ez nuen oso ondo pasatu, baino gero egoerari buelta eman nion, eta bukaera askoz hobeto egon nintzen.

**Pilotan nola eragin zuen pandemiak?**

Gure etxera sartu ginen jende gabe jokatu genuela jakinda. Konfinamendua baino astebete lehenago amaitu zen pilota profesionala, eta hiru hilabetez halaxe izan zen. Hori arazoa izan zen niretzat, eskuak asko biguntzen zaizkigu geldirik

egonda, baina etxeko horma baten aurka ibiltzen nintzen. Nahiko ondo moldatu nintzen.

**Publikorik gabe hasi zineten, baina nola daude gauzak orain?**

Aurreko udan jendearekin hasi ginen, baina gero urria edo iraila aldera legeak aldatu zituzten eta jada ez ziguten uzten jendaurrean jokatzeko. Hasieran oso arraroa izan zen, lehenengo bost partidetan ezin nuela sentitu nuen; ez nuen nire maila aurkitzen, jende gabe ez nintzen eroso sentitzen, baina denborarekin ohitu egin nintzen. Lege berriak ateratzen dituen zain egoten gara.

**GAR**  
GRUPO MONROY  
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK  
**628 45 78 39**  
reformasmonroy@hotmail.es  
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
649 43 54 75  
943 36 72 64  
IT-ak egiten dira  
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

**Josue**  
Igeltseritza  
606 37 21 05  
Atallu pol.28 USURBIL

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza Orokorra  
693 059 392  
uraitz@uraitz.com USURBIL



# “Aimar Olaizola nire idoloa zen txikitan”

**NOAUA!** Txikitatik izan duzu beti pilotarako joera edo hasieran beste kirol batzuekin hasi zinen?

**Aitor Aranguren Errasti:** Txikitatik pilotarako joera izan dugu. Aginagan, eskolako jolasgarai guztiak eta ahal genuen denbora gehiena frontoian pasatzen genuen frontenisean edo pilotan. Hala ere, ia kirol guztiak gustatzen zaizkit, telebistan edozein kirol ikusten dut. Gustoko dut futboleko jokatzeko ere, baina aukeratu egin behar nuen bat edo beste, eta pilota aukeratu nuen.



“Etxean oso pilotazaleak gara”, adierazi dio Aitor Aranguren Errastik NOAUAri.

**Eskolatik frontoira joaten zineten garai horietatik edo etxekoengandik datorkizu pilotarako zaletasuna?**

Etxean oso pilotazaleak gara, eta txikitatik asko ibiltze horrek asko esan nahi du.

**Duela hiru urte egin zenuen debuta Tolosan Beotibarren. Espero zenuen hain urruti iristea?**

Denok txikitatik amesten dugun zerbaite da. Nik maila ona eman izan dut txikitatik hasita, eta kanpoan txapelketetan jokatzeko beti postu onak lortzen genituen. Txapelketan aurrera joaten ginen beti, eta hamabost urterekin sinatu nuen kontratu aurreko bat gure enpresarekin, 18 urterekin debutatzeko aukera eman eta aurrera egin nuen.

## AITOR ARANGUREN

**“Nahiko ondo daramat presioaren kontua, txikitatik nahiko lehiakorra izan bainaiz. Beti gustatu izan zait irabaztea”**

**Profesionalen mailan zerbaitek harritu zaitu, espero ez zenuen zerbaitek?**

Nahiko natural hartu dut, baina badaude aldaketak: pilota bera, telebistan agertzea... Jendeak gehiago ezagutzen nau. Beste pilotariekin harremantzea askoz zailagoa izango zela uste nuen, baina hasieratik oso erraza izan zen.

**Nola daramazu presioarena?**

Nahiko ondo daramat presioaren kontua, txikitatik oso lehiakorra izan bainaiz. Beti gustatu izan zait irabaztea, edozertan izanda ere. Frontoira joan eta presioa sentitzen dudanean ere gustura aritzen naiz.

**Profesionalan egon zenean epean greba bat egon da. Nola bizi izan zenuten?**

Asko gazteak ginen, oso gazteak. Batzuk izango ziren zaharxeagoak, baina gehienak 25 urtetik beherako gazteak ginen, eta horrek zalantzak sortzen ditu, baina aurrera egin genuen. Uste genuen beste lau pilotari horiek, gure artean egon behar zutela, eta lortu genuen helburua. Oso gustora gaude horrekin.

**Eskuz banakako txapelketa, binakakoa edo lau eta erdikoa, 3 urteko ibilbide profesionalaren ostean, zein jardura duzu gustukoen?**

Orain gehienbat binaka ibiltzen naiz. Atzelaria izanda, profesionalan aukera gutxi ematen zaie atzelariei, baina lehen gaztetan lau eta erdikoa jokatzeko ohitura neukan. Txapela batzuk ere irabazi nituen eta asko gustatzen zait lau eta erdikoa jokatzeko, baina azken aldian ezinezkoa izan da, eta binaka aritu naiz. Pozik bai.

**Txikitan zein pilotari miresten zenuen?**

Aimarren alde egoten nintzen. Nire idoloa zen txikitan, eta gero ere bai. Atzelarien artean, Barriola ere asko gustatzen zitzaidan. Hiru modalitate jokatzeko zituen, eta horrek nik uste prestigio gehiago ematen ziola eta asko gustatzen zitzaidan.

**Aimarrekin egin zenuen debuta profesionalan. Nolakoa da geroztuan, zuk miresten duzun horren kontra jokatzeko?**

Asko daki eta adarra jotzen dit, baina harreman ona daukagu, bai. Pilotarien artean nahiko giro ona daukagu. Hor izan ziren arazo txiki batzuk greba kontu horren ondorioz, baina normalean giro ona izaten da.

## “9 urterekin sartu nintzen Pagazpen eta profesionalan debuta egin arte bertan egon naiz”

**NOAUA!** Formazio prozesua garrantzitsua izanik, eskola kirola bezalako egitasmoek nolako lana egiten dute?

**Aitor Aranguren Errasti:** Lan ona, geroz eta ume gehiago daude. 12-13 urtetik aurrera ordea jende askok utzi egiten du pilota. Batzuei ez zaie gustatzen bakarrik lehiatzea, eta gazte-oxoak direnean talde kirola jokatzea.

**Pagazpe Pilota Elkartearkin hainbat txapelketa jokatu, zuretzat eskola garrantzitsua izan zen, ezta?**

Bai, 9 urterekin sartu nintzen Pagazpen eta profesionalan debuta egin arte bertan egon naiz. Beti beraiek askatasuna uzten zidaten, nahi nituenak jokatzeko. Kirol Elkartearen ikuspuntutik, aipagarriak, adibidez, bi txapela irabazi genituela, eta maila go-

renean ibili ginela. Pagazpirekin beti esker oneko egongo naiz.

**Herri askotan dauden elkarte horiek harrobi funtzioa betetzen dute askotan.**

Profesionalan gauden denok hortik abiatu ginen. Klub txikietan egon gara gehienok, baina klub horiei esker profesionalak hor gaude, eta bai, klubari ere asko eskertu behar zaio.

**Etorkizun urrun batean, erretiratu ostean, zeure burua ikusten duzu gazteagoei formazioa ematen, pilota irakasle lanetan alegia?**

Pilota asko gustatzen zait eta gustatuko litzaidake bai umeei, bai gaztetxoek irakastea. Nik ikasi dudana, bai debutatu aurretik eta bai profesional debutatu ondoren, partekatzea gustatuko litzaidake, bai.

# Zapategiko proiektua garatzeko hirigintza hitzarmena adostu dute

**G**arai zaila izan arren, egitasmoa bideratzea lortu dute. Usurbilgo Udalak, Michelin-ek, Gureak-ek, eta Elkar-en ordezkari bidelagun berriak, Balfer Norte SL inbertsoreak Zapategiko proiektu sozioekonomikoa garatzeko hirigintza hitzarmena adostu dute.

Akordio horren argazkia duzue ondokoan, iragan astean Zumarten ateratakoa; Agurtzane Solaberrieta Mesa Usurbilgo alkatea, Gureak-eko zuzendari orokor Asier Vitoria, Balfer Norte SL-ko arkitekto Blanca Balda eta Michelin Lasarte-Usurbil lantegiko zuzendari David Udakiola dituzue.



Zapategiko hirigintza hitzarmena adostu duten eragileen ordezkariak.

## Bidelagun berria

Lau eragileon eskutik garatuko dute egun Michelin ondoan den Zapategi eremua. 2018ko urrian sinaturiko hirigintza hitzarmena ordezkaturiko du. Gogoan izan, pandemiak erasotutako testuinguru sozioekonomikoa tarteko, ezinbestean proiektutik aldendu behar izan zuen Elkar-ek. Egoitza berria Adunan kokatzea erabaki zuen. Horrek kolokan ja-

## USURBILGO UDALA

***“Eremu degradatu bat oso modu duinean eraberritzeko apustua egin dugu”***

rra zuen Zapategiko proiektua, baina hilabeteotan elkarlanean segi eta bidelagun berria aurkitu dute; Balfer Norte SL, Andoain sarrerako industriagunea garatzen ari den inbertsorea.

## “Egoera berrira” egokitua

Proiektu honi esker, “eremu degradatu bat oso modu duinean eraberritzeko apustua egin dugu, hirigintza modernoaren eta jasangarriaren irizpideak aplikatuz”, Usurbilgo alkatearen esanetan. Proiektua birdefinitu eta “egoera berrira” egokitu dute; “ekonomikoki bideragarria egin zezakeen antolamendu bat adostu dugu, ikuskera publikoa eta enpresen

beharrak koordinatuz”. Egitasmoa “kinka larrian” egon ostean, aste gutxiko tartean, hitzarmena adostea ahalbidetu duen egitasmoko eragileen “jarrera positibo eta aktiboa”, elkarlanerako prestutasun eta konpromisoa txalotzen du alkateak. “Ez dut dudarik lan egiteko modu horrek ahalbidetu duela hain epe gutxian egoera hau iraultzea, eta adostasunetara heldu ahal izatea”.

# Elektronikako “poloa” sortzeko aukera Gureak-ek

2018ko udazkenean sinatu zuten lankidetzak hitzarmena Elkarrekin, Udalarekin eta Michelinekin. Pandemiak Elkar egitasmotik irtetea eragin du. Gureak-i ere Zapategi ez zen beste leku batzuetara joateko aukera sortu zitzaion, baina langileen irizgarritasun irizpidea lehenetsi zuten, “gure langileen enplegarritasuna bermatzen baitu”. Hasieran, Lasarte-Oriako lan gunea kokatu nahi zuten Zapategin, baina “gerora erantsi diogu proiektuaren garapenean”, elektroni-

kako “polo” bat sortzeko aukera, zioen zuzendari Asier Vitoria iragan asteko agerraldian. Gipuzkoan zehar sabakanatuak dituen sektore horretako jarduera Zapategin bateratuko du. “Datozen urteetan elektronikak sektore ezberdinetan garapen handia izango duela iruditzen zaigu eta jarduerok Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonentzat enplegu duina eskaini dezakeela”.

## Balfer, Elkar-en ordezkaria

40 urteko ibilbidea du eraikuntza

eta sustapen lanetan. Balfer Norte SL inbertsorea Gureak-ekin batera Michelin ondoan kokatuko da. Elkar-ek utzitako lekua hartuko du, “partzelako hirigintza eskubideak” bereganatu ostean. “Proiektu oso interesgarria iruditzen zaigu”, zioen Andoaingo Illaramendi industriagunea garatzeaz arduratu den enpresako ordezkariak.

## Eremu industrialak sendotzea

“Bizilagun” berriak ongi etorria emanez hartu zituen Michelin-eko zuzendari David Udakiolak,

proiektu honetan bidelagun dituen egindako lanagatik eskertzearekin batera. Lantegi honen helburua, Zapategiko eremuaren izaera industrialari eutsi eta lanpostu berriak sortzea dela nabarmendu zuen. Michelin Fundazioak urteak daramatza Gipuzkoako enpresen sarea indartzen; 100 lantegi baino gehiago lagundu eta “1.000 lanpostu sortzea ahalbidetu da”. Garai zaila izan arren, bere esanetan, “proiektu hau aurrera aterako den konfiantza dugu”.



# Zapategiko eremua biziberrituko duten proiektua, 2023an eraikitzen hasteko aurreikuspena

Proiektu sozioekonomiko honen xehetasunak aurkeztu zituzten sustatzailerak iragan astean:

■ Aurreko proiektua birdimentsionatu dute.

■ Erabilera industrialerako eremua izango da, irisgarria, genero ikuspegia txertatua izango duena.

■ Aurreko proiektuarekiko eraikigarritasuna murriztu da. Karga urbanistikoa gutxitzea eragingo du.

■ Urbanizazio honen mantentzerako kontserbazio batzorde bat osatuko dute 20 urterako.

## Azalera

■ Guztira: 114.757,86 metro karratu.

■ Banaketa: 70.096,39 metro karratu Michelinek erabiltzen duen lurzoruko eremua, 46.592



700 lanpostu erakarriko ditu Zapategin berreskuratu den eremuak.

## USURBILGO UDALA

**“Aurreko proiektuarekiko eraikigarritasuna murriztu da”**

metro karratu dira hirigintza eraikigarritasunekoak. 50.164 metro karratuko lur eremuan kokatuko dira Gureak eta Balfer (32.965

metro karratuko hirigintza eraikigarritasuna) inbertsoreak erakarriko dituen enpresak.

■ Gureak: 13.000 metro karratuko azalera izango du (10.000 metro karratuko pabilioi eta biltegia eta 3.000 metro karratu zerbitzu orokorretarako; jangela, formakuntzak gelak...).

■ Lanpostuak: orohar, 700

lanpostu erakarriko ditu proiektuak. Gureak-en 400 lanpostu, epe ertainera 550 lanpostura heltzeko aurreikuspena. Lantegi honetako kontratatuen %90ak desgaitasunen bat duten pertsonak izango dira.

## Tramitazio egutegia

■ Irailak 30: ohiko udalbatzarra. Hasieraz onartzekoak dira hirigintza hitzarmena.

■ Segidan: alegazio epea. Alegaziorik ez balego behin betiko onartu eta izenpetuko dute.

■ Urria edo azaroko udalbatzarrean: arau subsidiarioen aldaketa ahalbidetuko lukeen dokumentuaren hasierako onarpena.

■ 2023. urte hasieran: Udalak obrak egiteko lizentzia emateko aurreikuspena.

■ Eraikuntza lanak, 18 hilabetezko tartean.

**IRUARKAITZ  
ERAIKUNTZAK, S.L.**

**·FATXADAK ETA TEILATUAK**  
**·ERAIKUNTZAK**  
**·BARRUKO BERRIKUNTZAK**  
**·URALITA KENTZEKO ENPRESA**  
**BAIMENDUA**

**630 90 02 79 AGINAGA**

San Praixku bihotzean

**KARABANAK**  
 Bigarren eskuko salmenta, konponketak eta mantenua  
 24 orduz hibernatzeko zerbitzua  
 Alokairu zerbitzua

**NAUTIKA**  
 Salmenta, konponketak eta mantenua  
 24 orduz hibernatzeko zerbitzua  
 Alokairu zerbitzua

Intxaurreta z/g, Aginaga, Usurbil - Tel.943 362 660  
[www.noraianautika.com](http://www.noraianautika.com) - [info@noraianautika.com](mailto:info@noraianautika.com)

# Hobarien eskaintza nabarmen zabalduko dute 2022ko ordenantza fiskalek

2022rako ordenantza fiskalen proposamena aurkeztu zuen udal gobernu taldeak iragan irailaren 23an. Berrikuntza sakon batekin; hobarien eskaintza nabarmen zabaldu dute, usurbildarrek zerbitzu publikoetarako duten sarbidea erraztu eta herritar guztien aukera berdintasuna bermatzeko.

## Udalbatzarrera, hasieraz onartzera

Udazkenarekin, “zerga politika arautzeko” garaia da Usurbilgo Udalarentzat. Ostegun honetan, irailaren 30ean izango den ohiko udalbatzarrera eramango du gaia udal gobernu taldeak hasieraz onartzeko.

Alegazio epea dator gero eta urte amaieran behin betiko onartuko dituzte. Iragan ostegunean aurkeztu zuten gai honi lotutako proposamena Ogasun Batzordean lehenik, eta prentsaurreko bidez hedabideen aurrean eguerdi partean Potxoenean.

Berrikuntza sakon bat dakarte, datorren urte berrira begira onartu eta indarrean



2022rako ordenantza fiskaletako berrikuntzak iragarri zituen udal gobernu taldeak iragan astean Potxoenean.

## USURBILGO UDALA

**“Jauzi bat egin nahi du Usurbilgo Udalak, horretarako eskura ditugun tresnak baliatuta”**

jarri asmo dituzten udal zergek, tasek eta prezio publikoek. “Jauzi bat egin nahi du Usurbilgo Udalak, horretarako

eskura ditugun tresnak baliatuz”, zioen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, gai honi buruzko irailaren 23ko prentsaurrekoan. Gai honi dagokionean, legegaldi honetako “aldaketarik sakonena” dela aipatu zuen.

## “Udalerri mailako aberastasuna birbanatzea”

Horixe du helburu Udalak.

Bestela esanda, “gehiago irabazten dutenek gehiago ordaintzea, gutxiago irabazten dutenek gutxiago ordaindu ahal izateko”. Horren isla argia izango dute ostegun honetako udalbatzarrera hasieraz onartzeko eraman asmo dituzten 2022rako ordenantza fiskalek. Hobarien eskaintza zabaldua bermatu nahi dute eman nahi duten jauzi sakona.

# Hobari gehiago, aukera berdintasuna bermatzeko

Hortxe udal gobernu taldeak iragan astean Potxoenean iragarritako berrikuntza nagusia; justizia sozialerantz, hobarien eskaintza nabarmen zabalduko du 2022ra begira. Orain arte, ur eta hondakinen tasetarako eska zitezkeen hobariak, baita Oiar-do Kiroldegiko abonuetarako ere. Datorren urtetik aurrera ordea, baita “estolderia zerbitzuetarako, hileta zerbitzuetarako, baratzen erabileratarako, kirol instalazioetako zerbitzuetarako (abonuek gain, lehen aldiz ikastaroetarako), Haur Eskola zerbitzuetarako eta Udajo-

laserako”.

Helburu argi batekin; “usurbildar guztien aukera berdintasuna bermatzea”, herritarrei eskaintza publiko guztietarako sarbidea erraztea bermatzeko, “edozein izanda ere haien errenta maila”.

Gai honi buruzko ordenantza berri bat landu du EHBilduk; “arautegi propioa, herritarrek argiago izateko non eta zertan eska ditzaketen hobariak”.

## Kolektibo zaurgarrienak babestea helburu

Dirudienez Covid-19ak eragin-

dako osasun krisialdia hoberantz doa, baina gaurkoz “ezohiko egoeran gaude eta horrek ezohiko neurri eta erabakiak hartzen jarraitzea eskatzen digu”. Legegaldi osoan bezala; 2019an udal gobernu talde gisa lanean hasi eta gutxira, KPI-a igotzea erabaki zuten, “aurrez zegoena bere horretan utzita”. Iaz, pandemia batean, aurtengorako zergak, tasak eta prezio publikoak “izoztea” erabaki zuten, Covid-19ak eragin eta baldintzatutako “ingurune zail, ziurgabe eta ezegonkorrean”. Horrekin batera, alarma egoerak iraun artean “zergen or-

dainketa atzeratzea” edota herritar eta enpresei eskaini baina erabili gabeko zerbitzuengatik zegokien tasa ez kobratzea erabaki zuten. Pandemia hasieratik “personak jarri ditugu erdigunean, kolektibo zaurgarrienak bereziki”, aurretik zeuden beste hainbat krisi ageriagoan jarri ostean, eta haiek guztiak lagundu asmoz”.

2021eko udal aurrekontuak ere horren isla direla nabarmendu dute baita udal gobernu taldetik; hainbat diru-laguntza deialdi plazaratu ditu eta Udalak aurtun.



# Ordenantza fiskal eraberrituak hasieraz onartuko dituzte osteguneko udalbatzarrean

Hobariok finantzatzeko, jarduera ekonomikoaren zerga ordaintzen dutenei kokapen indizea aplikatuko zaie. Herrigunean daudenei %20 gutxiago (1etik 0,8ra murriztuz) eta industriaguneetan kokatutakoak %20 gehiago (1etik 1,2ra igoera) ordaindu beharko dute.

Bestetik, Udalak eginiko azterketa ekonomiko baten arabera, orekatuak daude diru-sarrerak eta gastuak, hondakinen kasuan aldiz, "desoreka nabarmena" sumatu dute. Oreakatzeko inguruko udalerrien antzera, hondakinen tasa igotzea erabaki du Udalak. Halere, "inguruko herriekin alderatuta, tasa baxuenetarikoa izaten jarraituko dugu".



Errenta mailaren arabera, %50-%90 arteko hobariak aplikatuko ditu Udalak 2022ko ordenantza fiskalean.

## USURBILGO UDALA

### "Hondakinen tasa baxuenetarikoa izaten jarraituko dugu"

#### Onarpen prozesua

■ Irailak 23: proposamenaren aurkezpene Ogasun Batzordean eta prentsaurreko bidez.

■ Irailak 30: hasieraz onartzea udalbatzarrean.

■ Segidan, alegazio epea irekiko da eta urte amaieran behin betiko onarpena. Behin betiko erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, indarrean jarriko dituzte ordenantza fiskalok.

#### Zenbakitan

■ Irizpide orokorra: %1,5eko igoera (KPIaren %3ko igoeraren azpitik).

■ Salbuespenak: kirol zerbitzuetako tasak eta abonauak %0,9 igotzea, Buruntzaldeko udalen batzordeak hala erabaki ostean; eta hondakinen tasak (zati finkoan urteko 86,04 eurotik 94,6ra igoera; errefusaren bilketari eragiten dion zati aldakorra, kubo bakoitzeko 0,5 euro gehiago ordaintzea; 1,5 euro, euro bakarraren orde).

■ Hobariak: %50-%90 artekoak, ur, hondakin, estolderia, hileta, baratzen erabilera eta kirol instalazio (abonuez gain, lehen aldiz ikastaroetan), Haur Eskola zerbitzuetan (300 euroko hileroko kuantan, %90era arteko hobaria jasotzeko aukera) eta Udajolasen".

■ Balizko onuradunak, 2020ko errenta aitorpenaren kanpainako datuen arabera: 2.035etik gora aitorpen eta honenbestez, batz bestea, 4.000tik gora herritar.

## DOAKO IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABETUENTZAT

### ESKINTZA IREKIKO IKASTAROAK 2021eko ABENDUA arte

Izena emateko edo informazio gehiago nahi izanez gero: 943 36 46 00 (Luz. 78) - 667 415 818

#### MANTENIMENDUA / ENERGIA

- Hozteko ekipoak gas fluordunekin manipulatzeko
- 2D instalazio termikoen diseinua: Autocad
- 3D instalazio termikoen diseinua: Revit
- Hozteko Zentrala
- Termografia
- CO2-a Etorkizuneko hozgarria
- Argiztapen eraginkorra eta Dialux
- Oinarritzko mantentze-lanak etxebizitzetan (Elektrizitatea eta iturgintza)
- Eraikinen Eraginkortasun Energetikoko parametro ekonomiko errentagarriak
- Aire girotuko instalazioak muntatzea eta mantentzea
- Eraginkortasun energetikoa uraren ziklo integralean

#### ADMINISTRAZIOA

- GOOGLE web orriak
- KONTABILITATEA

#### ELEKTRIZITATEA / ELEKTRONIKA

- Eraikinetako telekomunikazio-azpiegiturak muntatzea eta mantentzea

#### FABRIKAZIO MEKANIKA

- Txirbil-harroketak bidezko mekanizazioa
- Fusioa eta isurketa
- Fagor Torneado: prestaketa eta mekanizazioa
- Planoen interpretazioa
- Fagor 8050/55/65 fresagailuaren programazioa
- Elektrohigadura bidezko zehaztapenaren mekanizazioa
- Catia I. maila: Mechanical Design
- CAM Gibbs Oinarritzko marrubia
- CAM Gibbs fresatze aurreratua
- CAM Gibbs oinarritzko tornua
- CAM Gibbs tornu aurreratua

#### LANERAKO PRESTAKUNTZA

- Nola erabili asertibitatea komunikazioa hobetzeko eta arazoak konpontzeko
- Bezeroen arreta eta kudeaketa egoera desberdinetan
- Antolatu, lehenetsi eta hobetu zure emaitzak
- Adimen emozionala. Sentsibilizazioa. 1. maila
- Aurkezpen Eraginkorrak Publikoan



Etarte bidea, 9 (Zubieta auzoa)  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



CIFP USURBIL LHII

www.lhusurbil.eus  
cursos@lhusurbil.eus





## BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

628 45 78 39

[reformas@reformasmonroy.com](mailto:reformas@reformasmonroy.com)  
[reformasmonroy.com](http://reformasmonroy.com)

**HURRENGO IREKIERA!**

*Berritze zerbitzu integralen bulegoa  
Usurbilgo Kale Nagusiko 35.behean  
Sektorean esperientzi zabala*

*Zure zain egongo gara!*



KALE NAGUSIA 35, BEHEA, USURBIL



# “Zumeta in memoriam”, omenaldia larunbatean

Covid19ak eragindako pandemia betean, etxetik irten ezinik, konfinatuta ginela zendu zen Jose Luis Zumeta margolari usurbildarra, 2020ko apirilean. Egun haietan lore eskaintza, eta lehen agur ekitaldi bat egin zion Udalak frontoi atzean artista eza-gunak sortutako muralaren parean. Orain, bere familiak “Zumeta in memoriam” ekimena antolatu dio urriaren 2rako, larunbata, gunee berean. “Usurbilgo frontoian hark egindako muralaren magalean gogoratuko dute artista gertukoenen hitzekin, besteak beste”, iragarri dute.

Hitzordua, urriaren 2an, eguerdiko 12:00etan Zumetaren muralaren parean. Ekitaldirako izena, irailaren 30a baino lehen bideratu ahalko duzue usurbilkultura.eus plataforman.



Jose Luis Zumetaren senideek antolatu dute, urriaren 2an bere sortze lan ezagunaren parean ospatuko den omenaldia.

## “ZUMETA IN MEMORIAM”

**“Frontoiko muralaren magalean gogoratuko dute artista gertukoenen hitzekin”**

### Zumeta, Artiumen

Omenaldi honen bezperetan, Jose Luis Zumeta albiste dugu baita beste kontu batengatik. Eusko Jaurlaritzak EAE-ko Administrazio Oroko-

rraren jabetzakoak diren 101 artelan uztekoa da Artium Arte Garaikideko Museoaren Fundazioari. “Obra gehienak Gure Artea Lehiaketaren bidez eskuratu ziren, 1982 eta 1995 artean”. Museoak eta Jaurlaritzak esleipen hau bideratzeko adostu duten hitzarmena aurkeztu dute azken egunotan.

101 artelan horien atzean, sortzaile ezagun asko dau-

de; tartean Jose Luis Zumeta margolari usurbildarra. Baita, “Dario Urzay, Cristina Iglesias, Gema Intxausti, Gabriel Ramos Uranga, Prudencio Irazabal, Azucena Vieites, Jesus Mari Lazkano, Itziar Okariz edo Marisa Fernandez bezalako artisten lanak”. 37 artelan jada museoan bertan zeuden, beste 10 iaz heldu ziren, gainerako 54ak laster jasoko ditu Artium Museoaren Bildumak, Eusko Jaurlaritzak berri eman duenez.

“Hitzarmen honen bitartez Artium Fundazioak artelanak gorde, kontserbatu, digitalizatu, aztertu eta zabaltzeko ardura hartuko du. Horrez gain, tratamendu tekniko egokia emango die artelanei eta hala badagokio irizpide zientifikoekin erakusteko aukera ere izango du, beti ere, kontserbazio eta segurtasun baldintza egokietan”.

## Kultur Biran murgiltzear da Aginaga

### Urriak 1, ostirala

■ 18:30 Eliza zaharraren irekiera erakusketa.

■ 22:00 Kontzertu gaua Aginagako Ariztitxo frontoian: Lukiek (Mungia) eta Ibil Bedi (Nafarroa) taldeak. Edukiera: 150 lagun.

### Urriak 2, larunbata

■ 06:30 Oilasko biltzaileen irteera trikitilarietara Atarialde elkartetik. Izen ematea: aginagaherria@gmail.com

■ 16:00 Oilasko biltzaileen bazkaria Sekañan. Izen ematea: aginagaherria@gmail.com

■ 19:00 Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak Eliza Zahar atarian.

■ 21:00 “Albertoren bakarriketa” Ariztitxo frontoian. Zehaztasunak: “Albertok ez du aurkezpenik behar. Eza-

guna dugu aginagarra. Bere umoreagatik eta antzerki-gintzagatik ezaguna da eta makina bat bakarriketa egin dituen arren, lagun artean lehen aldia izango du publikoarekin. Estreinakoz aritzeko San Praixkuetako plazan izan behar zuen bai ala bai”.

Edukiera: 40 lagun.

### Urriak 3, igandea

■ 17:00 Potxin eta Patxin paila-zoen saioa Ariztitxo frontoian.

Zehaztasunak: “Potxin eta Patxinen ikuskizunak denetik dauka pailazoak, malabareak, zirkua eta musika! Ordubete inguruz gozatzeko aukera edukiko dute etxeko txikiak!”.

Edukiera: 150 lagun.

■ 19:00 Film proiektzioa Eliza Zaharrean: “Chihiren Bidaia”. Sinopsia: “Chihiren 10 urteko

neska da, eta bere gurasok -Akio eta Yugo- etxetik aldatu behar dutela esaten diotenean, asko nahigabetzen da. Etxe berrirako bidean galdu egiten dira eta tunel misteriotsu bat aurkitzen dute, eta jakinguraz beterik, barnera doaz”.

Edukiera: 40 lagun.

### Urriak 4, astelehena

■ 10:00 Haurrentzako jokoak Ariztitxo frontoian.

Izen ematea: aurrez, aginagaherria@gmail.com helbidean.

■ 12:00 Jubilatuentzat hamaketakoa Aginaga sagardotegian. Izen ematea: aurrez Arrate zahar egoitzan.

■ 15:00 Karaokea Eliza Zaharrean.

Izen ematea: momentuan bertan.

■ 19:00 Toka txapelketa herri-

koa Ariztitxo frontoian.

Izen ematea: momentuan bertan.

### Oharrak:

-Ez dira ohiko jaiak izango. Protokolo zorrotza landu dute Usurbilgo Kultur Biraren eredu jarraituz.

-Sarreraren zati bat aginagarentzako gordeko da; Arrate Tabernan izango dira eskuragarri.

-Gainerako sarrerak usurbilkultura.eus plataforman eskuratu ahalko dira, ekintza bakoitza ospatu baino bi egun lehenagorarte. Gero antolakuntzak sarrerak zozketatu eta emailaz jakinaraziko zaie txartelak nortzuei egokitu zaizkien.

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

# Kukulaisi, euskarazko aisialdiko euskaltzaleen topagune berria

**K**ukulaisi jaio da, euskarazko aisialdia garatzea xede nagusia izango duen euskaltzaleen topagunea. 14 euskara elkarteek eta Euskaltzaleen Topaguneak sortu dute, tartean NOAUA! Kultur Elkarateak. Irailaren 25ean egin zuten federazio berri honen eratze batzarra Elgoibarko musika eskolan eta bertan izan zen kultur elkarte honetako ordezkariak bat ere. Egitasmo honen sustatzaileetako bat izango da NOAUA!.

“Euskaltzaleen Topagunean biltzen diren eta aisialdia lantzen duten euskara elkarteek egindako hausnarketaren emaitza izan da erakunde berriaren sorrera, tokian tokian euskarazko aisialdia lantzen duten egitasmoak artikulatu eta garatzeko”, adierazi dute Euskaltzaleen Topagunetik.

Euskaltzaleen Topagune-ko lehendakariak, Kukulaisi federazio berriaren zuzendaritza taldeak eta zuzendariak hartu zuen hitza. “Hitz hartzeetan euskarazko aisialdiak hizkuntzaren garapenean duen garrantzia azpimarratu da. Hezkuntza formalak duen funtsezko papera ahaztu gabe, aisialdia adin guztietako pertsonen sozializazioan ezinbesteko elementua da eta hizkuntzaren normalizazioan ere ekarpen handia egiten duela aipatu da. Horregatik, aisialdi arloan egiten diren proiektu anitzen artikulaziorako eta garapenerako tresna modura



NOAUA! Kultur Elkartea, Kukulaisi eratze batzarraren egunean. Sustatzaileetako bat izango da.

## KUKULAI SI

**“Lehen hilabeteetan, orain arteko gogoetatik irtendako asmoak egitasmo zehatzetan gauzatzeari ekingo zaio”**

aurrezte du federazio berria. Sektore artikulatu batek bere eragina biderkatu dezakeela nabarmendu da, azkenik”.

Iragan larunbateko eratze batzarraren ondotik, aste honetatik aurrera, “lehen hilabeteetan, orain arteko gogoetatik irtendako asmoak egitasmo zehatzetan gauzatzeari ekingo zaio”.

## Euskara eragileei zabalik

Euskara elkarten mugimenduko elkarte edota eragileak batu dira proiektu berri honetara, baina “euskarazko aisialdia garatzen dituzten bestelako elkarteek ere zabalik dagoela azpimarratu dute Kukulaisi

euskaltzaleen topagunearen ordezkariak. Era berean, lehen eratze batzarrean Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako elkarteek parte hartu badute ere, federazioa Euskal Herri osoko eragileak biltzeko sortu dela nabarmendu da”.

Euskaltzaleen Topagunearekin eta Kultur Kabia aisialdiko zerbitzu enpresarekin batera, egitasmoarekin bat egin duten euskara elkarteak dituzte segidan:

- Usurbilgo NOAUA! K.E.
- Getxoko Bizarra Lepoan.
- Hernaniko Dobera.
- Euskarabentura elkarte.
- Gasteizko Geu elkarte.
- Ordiziako Hitzaro.
- Bergarako Jardun.
- Atarrabiako Karrikaluz.
- Lasarte-Oriako Ttakun.
- Arrasateko Txatxilipurdi.
- Deustuko Berbaizu.
- Durangoko Berbaro.
- Elgoibarko Izarra.
- Soraluzeko Pil Pilean.

## Gaztelekua martxan

Ikasturte berriari heldu dio 12 urtetik gorako gazteen topaguneak. Astean hirutan izango da zabalik. “Adin-tarteen araberrako banaketa egin liteke”, ohartarazi dute antolatzaileek. Ordutegi honetan irekiko dute Gaztelekua:

■ Astelehenak:

16:30-18:00/18:00-19:30.

■ Ostegunak:

16:30-18:00/18:00-19:30.

■ Larunbatak:

16:00-17:30/17:30-19:00.

Informazio gehiago: Gaztelekuan (San Inazio kalea, 3), gaztelekua@usurbil.eus helbidean edo 943 371 050/688 713 838 telefono zenbakietan.

## Sexu Aholkularitza Gunea ere zabalik

Aurrez aurreko kontsultak berreskuratu martxan da berriz Usurbilgo Sexu Aholkularitza Gunea, Usurbilgo Udalak jakinarazi duenez. “Udalak usurbildar guztiei doan eskaintzen dien zerbitzua da: sexuarekin lotutako zailtasunak bideratzeko aholkularitza gain, bestelako kontsultak ere egin daitezke”. Elene Jimenez Sexune taldeko sexologoa da udal zerbitzu honen ardura-duna. “Adin guztietako herritarrei zuzendutako zerbitzua da, edozein zalantza argitzeko eskainia, eta banaka, binaka zein taldean egin daitezke kontsultak”. Aldez aurretik hitzordua eskatzeko edo informazio gehiagorako: 697 919 516/sexuholku@usurbil.eus

**Artzi**  
Patri 2022  
Jateketa

· bazkariak EGUNERO  
· afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

**txirriStra**  
7ABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**www.noaua.eus**  
USURBILGO ATARIA



**ETXEBIZITZA****Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarrren: 79m<sup>2</sup> berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705.

**Alokairuan**

Neska kaudimenduna, mas-kotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratu eta erroldatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

Usurbilgo gizonezko bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107.

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500.

**MOTORRA****Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m<sup>2</sup> Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko gure alokairuan edo erosteko. 628498326.

**LANPOSTUAK****Lan eskaintzak**

Txapeldun jatetxean zerbitzariak behar ditugu jangela eta barrarako. Euskalduna izateag baloratuko da. 669 527 452.

Zerbitzari bila gabiltza Aginaga sagardotegian. Deitu telefono zenbakiotako batera: 943366710 edo 943370668.

Zerbitzari euskalduna behar dugu Olarrondo jatetxean asteartetik ostiralera, eguerditarako soilik. 626 686 036.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505.

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera.

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

**LANPOSTUAK****Lan eskaerak**

Astelehen eta asteazken arratsaldeetan ingelesezko klaseak ematen ditut, norberaren etxean edo nirean. Klaseak ematen esperientzia zabala. 678106553.

Pertsona helduak, garbiketarako, peoi lanak edo pintore

laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonezko bat naiz. 622747833.

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833.

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 616 27 37 85.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioarekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egin dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikaraguako neska arduratsu eta onradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan

aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisieza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordutegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Orduko lana edo interna moduan 603315126.

**BESTELAKOAK**

Ukelele ikastea gustatuko litzaidake. Taldean edo banaka aritzeko arazorik ez. irakasleko moduan bazara deitu 606330556 telefono zenbakira.

Filologia ikasketak ditut, ingelesezko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. Harremanetan jartzeko: 660845780 / bouchrahar@outlook.com

**Zorionak Iratili!**

Urriaren 1ean, 7 urte beteko dituzu. Muxu handi bat familiaren partez, maitia!

**Heriotzak****Eufemia****Molano****Pajares**

Irailaren 26an

hil zen

95 urterekin

**Goardiako farmaziak**

|                      |             |                                 |
|----------------------|-------------|---------------------------------|
| <b>Osteguna 30</b>   | DE MIGUEL   | Kale Nagusia 32. Lasarte        |
| <b>Ostirala 01</b>   | ACHA-ORBEA  | Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| <b>Larunbata 02</b>  | GIL MARTIN  | Kale Nagusia 24. Lasarte        |
| <b>Igandea 03</b>    | GIL MARTIN  | Kale Nagusia 24. Lasarte        |
| <b>Astelehena 04</b> | LASA SUQUIA | Kale Nagusia 42, Lasarte        |
| <b>Asteartea 05</b>  | GIL MARTIN  | Kale Nagusia 24. Lasarte        |
| <b>Asteazkena 06</b> | URBISTONDO  | San Franzisko 1. Lasarte        |

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

|                     |                                            |
|---------------------|--------------------------------------------|
| <b>Osteguna 07</b>  | GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte    |
| <b>Ostirala 08</b>  | ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte            |
| <b>Larunbata 09</b> | ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |
| <b>Igandea 10</b>   | ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte |

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER  
Andre Kalea, 48 "Cuevas"  
943 55 17 93

**Iñaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMAILA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ZENDOIA ENEA** taberna  
Kale Nagusia 35, Usurbil

**BORDATXO**  
taberna  
**Pintxo Bereziak**  
943 37 10 42  
Zubiaurrenea 5

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

# Agenda urria

## 01 ostirala

- **Aginaga Kultur Biran.** 18:30ean Eliza zahar-  
raren irekiera erakusketa. 22:00etan Lukiek  
eta Ibil Bedi taldeen kontzertuak frontoian.
- **"Satiro" antzezlanak eta tertulia.**  
19:00etan Sutegin.

## 02 larunbata

- **"Zumeta in memoriam".** 12:00etan frontoi  
atzeko Zumetaren muralaren parean.
- **Aginaga Kultur Biran.** 06:30 Oilasko  
biltzaileen irteera eta 16:00etan bazkaria.  
19:00 Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.  
21:00 "Albertoren bakarriketa".

## 03 igandea

- **Aginaga Kultur Biran.** 17:00 Potxin eta  
Patxin pailazoen saioa Ariztitxo frontoian.  
19:00 Film proiektzioa Eliza Zaharrean: "Chi-  
hiroren Bidaia".

## Gizonezkoen sexualitateak aztergai, "Satiro" emanaldian

Gizonezkoen sexualitateak hizpide di-  
tuen "Satiro" antzezlanak antolatu  
du Usurbilgo Udalak ostiral hone-  
tarako, urriaren 1erako, 19:00etan Sute-  
gin. Umorea eta jolasa tartekatzen dituen  
emanaldia "desirak, gorputza eta barne-  
ratutako epaia gurutzatzen diren ideien  
lanketarako aproposa da, gazte zein hel-  
du eta gizon zein emakumeentzako".



"Satiro" antzezlanak gizonen sexualitateak  
izango ditu hizpide nagusi.

### Solasaldia

Antzerkia amaitu ostean, tratu onak,  
parekidetasuna eta sexologia arloetan  
diharduen Arremanitz kooperatibak ter-  
tulia bideratuko du emanaldiko aktore

Xanti Arrizabalagarekin batera. Solasaldi  
irekia izango denez, hitza hartzeko auke-  
ra izango da. Hitzordurako izen ematea  
aurrez, usurbilkultura.eus plataforman.

### Bilera Santueneko Taichi ikastaroaz

Ikastaroa egin edo ez erabakitzeke bilera  
deitu dute ostegun honetarako, irailaren  
30erako arratsaldeko 18:00etan Santue-  
neko jubilatuen elkartearen. Ikastaroko  
saioak astelehen eta ostiraletarako iraga-  
rri dituzte Santuenea elkartearen lokalean,  
17:15-18:15 artean. Izen emateko deitu  
telefono zenbakiotako batera: 675006445  
(Maribi)/645720696 (Rosario).

### Argazki lehiaketan parte hartzeko azken egunak

Irailaren 30era arteko epea dute interes-  
dunek, Santuenea Elkartek antolaturiko  
argazki lehiaketara lanak aurkezteko.  
Txapelketaren 18. edizioko gaia "San-  
tueneko sarrera-irteerak" dira. 7-16 urte  
artekoek nahiz 17 urtetik gorakoek parte  
har dezakete. Informazio gehiago behar  
duenak, 670 027 731 telefono zenbakira  
dei dezala.

### Datozenak

#### Sagardoetako sagarren erakusketa

Urriaren 1etik 10era izango duzue  
ikusgai Sutegiko erakustaretoan. "Sa-  
gardotarako erabiltzen ditugun 115  
barietateren artean aukeraketa bat"  
izango da antolakuntzak, Alkartasuna  
Usurbilgo Baserritarren Kooperatibak,  
Sagardoaren Unibertsitateak eta Usur-  
bilgo Udalak ikusgai jarriko dutena.  
Eragileok gainera, bertso-ibilaldia an-  
tolatu dute urriaren 24rako Txokoalde-  
ko parketik abiatuta, Maialen Lujanbio  
eta Andoni Egaña bertsolariekin eta  
Jakoba Errekondoren agibideekin.

#### Herri kirolen erakustaldia

Hitzordu berria iragarri du, asteotan  
plazan entrenatzen ikusiko duzuen  
Usurbil Herri Kirol Taldeak. Urriaren  
17an, 12:00etan Dema plazan, hiru  
kide (Aimar Zuloaga Seguroa, Gabi  
Sarasola Ibargoyen, Iurgi Mendiluze  
Zuloaga) 1.800 kiloko Urepel harriari  
tiraka lehiatuko dira eta Joseba San-  
chez leitzarra 750 kiloko harria al-  
txatzen jardungo da. Segidan, arlo ho-  
netan ibilbide oparo askoa izan duen  
Egioleta baserriko Txomin Alkorta  
Sarriegi omenduko dute. Gero bazka-  
ria Saizar sagardotegian. Otordurako  
izena urriaren 15a baino lehen eman  
behar da, 618 009 069 zenbakian.

**ZALDIGAIN**

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com  
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867  
Fax: 943300045

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

**USURBILGO HORTZ KLINIKA**

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4  
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170  
USURBIL

ARRANDEGIA

**PELLO**

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI

650 31 31 91 USURBIL



José María Larburu  
Garraiatzailea



# LARBURU

Garraioak

gruarekin ere egiten dugu lan

Larzusta z/g. AGINAGA



943 36 17 35 • 651 703 237



SAN  
PRAIXKU  
BIHOTZEAN

## sekaña

## ERRETEGIA

AGINAGA • © 943 362 773 - 667 694 769

# URDAIRA

## Sagardotegia

OSTIRAL, LARUNBAT ETA  
IGANDETAN irekita

osasun neurri guztiekin  
ERRESERBA EZAZU!



Aginaga 943 37 26 91

# noaia



Askorako eman dute 25 urtek. 1996. urtean usurbildar askoren inplikazioari esker izugarrizko bultzada izan zuen Noaia Kultur Elkartearen sorrerak.

Herria Herritik egiteko bultzada jaio zen usurbildarren bihotzetik eta eskuz esku mantendu da indar hau denbora guzti honetan zehar.

## HARTUKO DUZU ERRONKA? EGIN BAZKIDE!

Zurekin batera beste 25 urte (gutxienez) Herria Herritik egiten jarraitzeko erronkan parte hartzera animatu nahi zaitugu.



30 urte baino gutxiago dituzu?

Bazkide izatea erraztu nahi dizugu!

**25 € / URTEAN\***

\* 30 urte betetzean automatikoki bazkide-tza arrunta izatera pasako da.

## ABANTAILAK

Abantaila nagusia herriarentzat izango da. Noaia Kultur Elkartearen eragile garrantzitsua da herriko bizitza kulturala, aisialdikoak, etabar bizirik mantentzeko. Baina zuk ere abantaila batzuk izango dituzu:

- Zozketak.
- Deskontuak kultur ekimenetako sarreretan.
- Datorren urteko errenta aitorpenean hobaria jasoko duzu.
- Usurbildik kanpora bizi diren herritarrei, aldizkarria astero posta arruntez jaso aukera.

## ZOZKETA

Abendura bitarte bazkide egiten bazara, Usurbilgo komertzioetan erabiltzeko 150 €-ko erosketa bonoaren zozketan parte hartuko duzu.

## 3 modu dituzu bazkide egiteko:



ESKANEATU



Bete beheko inprimakia eta bulegora ekarri



Webgunearen bidez  
noaia.eus/bazkide



Telefonoz  
943 360 321

Izena

Abizenak

Nortasun agiria

Helbidea

Herria

Posta kodea

Telefonia

Posta elektronikoa

Kontu zenbakia (IBAN)

Bazkide-tza mota

☐ Arrunta (40 €)

☐ <30 urte (25 €)

Jaiotze data

noaia.eus